araba álava
foru aldundia diputación foral

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Izki Golfek “The Player” hartuko du, pickleball eta air badminton lehiaketak ere izango dituen golf txapelketa

Ekitaldia ekainaren 7an, igandea, egingo da, 9:00etatik 14:00etara, Izkiko golf zelaian. Izen-ematea zabalik dago, 15 euroan

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 20a. Izki Golfek “The Player” ekitaldiaren edizio berri bat ospatuko du datorren ekainaren 7an, igandea. Bere kirol egutegiko golf txapelketarik nabarmenetako bat da, banatuko diren sari kopuruagatik, eta, aldi berean, gorabidean dauden bi diziplina herritarrengana hurbiltzeko pentsatutako kirol jardunaldia izango da: pickleballa eta air badmintona.

Hitzordua Izkiko Golf Zelaian izango da, 9:00etatik 14:00etara, eta lehiaketa, familia giroa, sariak, opariak eta kategoria desberdinetako parte-hartzaileentzako jarduerak uztartuko ditu. Izen-emateak 15 euro balio du, eta welcome packa, hornidura, sariak lortzeko aukera eta zozketetan parte hartzea barne hartzen ditu.

Ekimen honen bidez, Izki Golfek bere kirol eskaintza golfetik harago zabaltzen jarraitzen du, jarduera irisgarri, dinamiko eta publiko guztientzat pentsatutakoen alde eginez. Helburua da ingurune natural pribilegiatu batean jardunaldi desberdin bat eskaintzea, bai kirolean hasita dauden pertsonek bai modalitate berriak ezagutu nahi dituztenek aire zabaleko kirolaz gozatzeko aukera izan dezaten.

Pickleballa 1965ean Ameriketako Estatu Batuetan sortutako diziplina da, eta tenisaren, badmintonaren eta mahai-tenisaren elementuak uztartzen ditu. Bere jatorria familia giroko arratsalde inprobisatu batean kokatzen da: Joel Pritchardek, Bill Bellek eta Barney McCallumek egurrezko palak, sare baxu bat eta zuloak zituen plastikozko pilota bat erabiliz jolas bat asmatu zuten. Gaur egun, nazioartean gehien hazten ari diren erraketa kiroletako bat bihurtu da, bere izaera sozial, erraz eta adin desberdinetara egokituagatik.

Bestalde, air badmintona badmintona aire zabalera eramateko garatutako modalitatea da. AirShuttle izeneko bolante berezi batekin jokatzen da; aire zabalean egonkortasun handiagoa eskaintzeko eta belarrean, hondarrean edo pista gogorretan praktikatzeko diseinatuta dago.

Jardunaldian zehar, antolakuntzak lehiaketa formatua egokituko du ekitaldiaren erritmoa errazteko eta izena eman duten pertsona guztien parte-hartzea bermatzeko. Horrez gain, txapeldunentzako garaikurrak, sariak, opariak eta parte-hartzaileen arteko zozketak izango dira.

Izen-emateak recepcion@izkigolf.eus helbide elektronikoaren bidez edo 945 37 82 62 telefono zenbakira deituta egin daitezke.

Iosu Muro Visa – imuro@araba.eus - 945 18 17 46 – prentsa.araba.eus